

ZALDI LASTERKETAK

RALLYA

LABURREAN

Klasikorik onenak
lehian ikusteko
aukera izango dugu

PELLO LORAN / DONOSTIA

Denboraldiko bostgarren ihardunaldiak, Gipuzkoako Foru Diputazio saria izango du erakargaririk nagusiena. Bertan, udaberri osoan klasi-
korik onenak bezala azaldu zaizkigunak izango ditugu, ostegunean lesionatu zen «Monet» ezik.

Azken urteotan, ezusteko irabazlerik ere izan dugu, Urrezko Kopa prestatzea bait zen punta puntakoen helburu nagusia. Gaurkoan berriz, nahiz udarako sari nagusira sasoi betean ailegatzeko asmoak izan, irabazlearentzat prestatuta dauden bost milioiak eskuratzea izango dute lehenengo betebeharra.

Hamahiru zaldi eta behor bakarra izango ditugu irteeran egoteko asmoz, baina pronostikoetan hiru dira txapeldun izateko aukera dutenak.

«Servando» da gehien gustatzen zaiguna. Bere ardura-dunek patxada haundiz programatu dute eta horrela lau lasterketa besterik ez ditu egin. Denboraldia aurrera joan ahala, bere arrendimenduak goruntz egin du eta Donostia fresko iristeak bere alde jakatuko du. Hipodromoa ez eza-gutzea izango da gakoa baina bere kalitatea ikusita, beregan konfidantza osoa dugu.

FON RULER
GARAIPENA
ERREPIKATZERA

«Sur-ek» berriz denboraldi gogorra izan du Madrilén, bere lasterketa planteatzeko erak, desgaste haundia suposatzen bait du. Hori dela eta, hilabete-ko atsedena eman nahi izan diote eta horrek behar bada sasoi bete betean ez egotea suposa dezake. Donostian behin aritu da bakarrik eta ez zuen emaitza onik lortu. Entrenamenduetan ondo moldatu dela dirudi eta beste aukera bat eman beharko.

«Fon Ruler» jaun eta jabe izan zen iaz hemen korritutako saririk nagusienetan eta aurtien errepikatze prest etorri zai-gu. Lesio batek lehiaketatik kanpo utzi zuen zortzi hilabetez eta ederki errekupeatu dela erakutsi digu azken lasterketetan. Distantzia ez du ondo mederatzten baina hipodromoa arrakastaz bete dezake.

Gure pronostikoak

1. Pal Pueblo (1) Alianza (4)
2. Belen (3) Galerna (5)
3. La Pelisier (8) Stavisky (2)
4. New Jersey (6) Drundy (2)
5. Servando (9) Sur (12)
6. Hamlet (3) Traderhorn (8)

Retegik ez du Galarzaren aurka
jokatuko «Virgen Blanca» ferian

Psikologikoki ez dago txapeldunaren aurka jokatzeko moduan


Azkenean ezin izan dute. Enpresariak behin eta berriz proposatu diote Julian Retegiri Gasteizko ferian Galarzaren aurka jokatzea, baina atzera egin du. Hala ere, goi mailako lau bikoteen arteko txapelketa ikusi ahal izango dugu. Faboritoak, Eugi eta Errandonea.

GASTEIZ

Sanferminetako Galarza eta Arretxeren arteko eskuz banakako partiduen ostean, Retegi eta Galarzaren arteko partiduekin amesten zuten gasteiztarrek. Enpresariak ere horretan ibili dira azken egunetan, baina Erasungoa ez dago txapeldunaren aurka jokatzeko moduan. Psikologikoki ez omen dago behar bezala prestatuta.

«Virgen Blanca Txapelketa» ez da hankamotz geratu. Antolatzaileek goi mailako lau bikote elkartu dituzte. Pilotari gazteak nagusitzen dira batez ere: Vergara-Tolosa, Eugi-Errandonea, Etxaniz-Zezeaga eta Salaberria-Arretxe. Orain arte ikusitakoaren arabera, San Fermin Txapelketan irabazle gertatu ziren Patxi Eugi eta Inaxio Errandonea dira faboritoak.

SALABERRIA ETA ARRETXE Fernando Arretxek ez du txapelketa honetan eskuz banakako partidurik jokatu. Luzaideko



Salaberria eta Arretxek bikotea osatuko dute Gasteizen.

CARLOS VILLAGRAN

pilotariak Galarza txapelduna gainditzeko bi saio egin ditu, baina ezin izan du. Gasteizen Binakako Txapelketan jokatu du. Aurrelari gisa, lehengo urteko Eskuz Binakako Txapelketan Ladis Galarzaren kide izan zen Jose Julian Salaberria jarri diote Luzaidekoari.

Txapelketatik kanpo beste hainbat partidua izango dira. Guztira zortzi jaialdi programatu dituzte enpresariak. Txapelketako koadrorik kanpo, Retegi II, Unanue, Ladutxe, Maiz II, Errasti, Muntion, Santi... jokatu dute. Añorgako pilotariari dagokionez, oraindik ez dago guztiz osatuta

Maurice Abeberri zenaren
omenez eskulturak Larrunen

L.E. / BAIONA

Larrun mendian eskultura multzo bat, Pantxoa Saint Estebenek zizelkatuak, estreinatuko da datorren azaroaren 3an. Bertan 'Maurice Abeberri omendua' elkarteak gogorarazi nahi du 1988ko otsailaren 21ean hil zen Frantziako Pilota Federakundearen lehendakaria.

Xedea aurkezteko, Baionan, Pilotako Federakundearen egoitzan bilduak ziren Dominique Boutineau lehendakaria, Pantxoa Saint Esteben Azkaineko eskultorea eta Txomin Hegi, Euskal Kultur Erakundeko zuzendaria.

Saint Estebenek bere proiektua «Larrun mendiari kalkatzen» saiatzen dela erran zuen, bere sendikortasun handiarekin. Heriotzaren tragediaren atzekaldean «min batetarik gozotasunera» joan nahi dela bere lana agertu zuen.

Hegik azaldu zuen EKEk karia horretara liburuxka bat plazaratuko duela «ximplea baina kalitatezkoa». Boutineauk pilotarien esker ona agertu nahi zutela argitu zuen. Era berean, Baionan 40 urtez abokatu



Pantxoa Saint Esteben.

egon bait zen Abeberri, Etxegarai abokatuak bere lankideek parte hartuko zutela harpidetzan ziurtatu zuen. Daniel Poulou Urruñako auzapezak herriak Larrun mendiaren txoko horren erabilpena finkatuko zuela erran zuen.

Dirulaguntzak hona bidali behar dira: 'M.Abeberri omendua' elkar-
tea - Trinkete Modernoa - BP 816 -
64108 BAIONA Cedex.

Karteldegia

Gaurko partidua

LUZAIDE. 18.00. Iribarren - Mendia / Telletxea - Urra. Salaberria - Galarza III / Retegi II - Arretxe.

ARITZBATALDE. 16.30. Etxaniz - Maiz II / Ariznabarreta - Aldazabal II. Bergara II - Zezeaga / Alustiza - Errandonea. Murga - Astarloa / Gabi-londo - Andueza VI.

MARKINA. 17.00. Mayo - Loide II / Aperribay - Iturralde. Arrasate II - Kareaga / Kastaños - Retolaza. Urizar II - Enrike / Areitio - Goya II.

URDULIZ. 11.30. Bizkaia Kopa: Garma - Otxandiano / Landea - Maruri. Alustiza - Goldarazena / Sanjurjo - Torre.

Astearteko partidua

ANOETA. 22.45. Tolosa III - Retegi IV / Etxaniz - Iturza. Eugi - Galarza III / Bergara II - Arretxe.

Asteazkeneko partidua

AZPEITIA. 23.00. Urkia - Auzmendi / Ezkurra - Ulzurrun. Matxin - Mujika II / Elizalde - Zubeldia. Arregi - Sal-dias / Altuna - Eizagirre.

ARRATEK bihar
hasiko ditu
entrenamenduak

Xerox Arrate eskubaloit taldeak bihar hasiko ditu 1991-92 denboraldirako entrenamenduak. Eibarko taldeak Ipurua kiroldegian egingo ditu lehen saioak, eta gero, abuztuaren 2tik 10era arte, Araneko bailaran egingo du kontzentrazioa. Jordi Riverak zuzentzen duen taldeak berrikuntza ugari egin ditu. Denboraldi honetarako helburuak ordea lehengo urtekoak izango dira, lehen fasea goiko taldean amaitu alegia.

ARGENTINARrek
Europarako bidea
aurkitu dute

Amerika Kopak eragin handia izan du Argentinako futboleant. Chilen garaipena eskuratu zuen taldetik lau jokalarik Europako taldeekin fitxatu dute azken hamar egunetan. Fitxaketarik sonatuena Leonardo Rodriguezena izan da ezbairik gabe. Argentinako taldeko erdilariak Marseillako Olympique taldearekin fitxatu du. Dario Franco (Zaragoza), Goycochea (Brest) eta Batistuta (Fiorentina) ere European jokatu dute datorren urtean.

REKARTE pozik dago
Deportivoko
fitxaketarekin

Lopez Rekarte arrasatearra pozik dago Deportivo de Coruña taldearekin egin duen fitxaketarekin. Real eta Barcelonako jokalaririk ohiri, berriz ere Mujika, Uralde eta Boronaten aldamenen egoteak erakartzen dio batez ere. Bere ustez Barcelonan ez du aukerarik eduki duen guztia emateko, baina Deportivon emango duela espero du. Barcelonan egin dituen urteez ez du hitzein nahi Rekartek.

SERGI BRUGUERAK
Donostian
jokatuko du

Sergi Bruguera jokalaria kataluniarra izango da Donostiako Tenis Txapelketako jokalaririk nagusia. Bruguerekin batera, Perez Roldan izango da faborito nagusia. Azken fasea hamasei jokalarik jokatu dute abuztuaren 12, 13 eta 14ean. Hauetarik hamar lehen mailakoak izango dira, lau aurrefasetik pasako dira eta azken biak gonbite bereziz hartuko dute parte. Antolatzaileek atzo azaldu zuten, sariak bikoiztu dira.